



## **Kapitala HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!**

**Bada garaia hitzetatik ekintzetara pasatzeko, zerbitzu publikoak diskriminaziorik gabe!**

**NAHIKOA DA!**

Emakume eta gizonen arteko soldata ezberdintasunei buruzko datuak irakurtzean (bai EHan zein Oiarztungo udalean), soldata arrakala deritzona, pertsona asko harritu egiten da, “lan berdina, soldata berdina” printzipioa betetzen ez dela ikusten dutenean. Gaur egun, ezberdintasun handia dago ordea, lan bati ematen zaion balioa lan hori nork egiten duenaren arabera neurtzen baita, eta ondorioz, horrek ezberdintasunak dakartza soldatetan, aitortza sozialean eta ardura (edota ardura faltan) sozial eta instituzionalean; lan batzuek jendarteari egiten dioten ekarpena gutxietsiz (adibidez, zaintza lanak, garbiketa lanak...).

Soldata arrakala, sistema kapitalistak emakumeek egindako lanak bigarren mailan kokatzeko tresna garrantzitsua da, nahiz eta bakarra ez izan. Datu garrantzitsu honek, argi uzten du, emakumeen lana ez dagoela dagokion bezala baloratua, ez aitortua, ezta berdin ordaindua ere, nahiz eta gizon batek egiten duen lan bera egin. Horrela, argi utzi nahi dute, emakumeen presentzia lan munduan eta produkzioan ez dela gustukoa, bigarren mailakoak direla. Eta emakumeen espazioa pribatua dela, zaintza lanak egin behar dituztela eta gainera, dohainik bada hobea.

Beraz, soldata arrakala ez da kasualitatea, helburu argia dauka: emakumeek egiten duten lana gutxietsia eta lan produktiboaren balioa indartzea; horrela eta noski, zaintza lanak ikusezin, gutxietsi, ezkutuko, doako eta eremu pribatukoak bihurtuz.

Guzti honekin, emakumeen lana ez dela garrantzitsua eta beharrezkoa azalarazi nahi dute, emakumeen etsipena nahi dute, zaintza lanetara ( eta soldatapean egitekotan ez baloratuak) bueltatzea nahi dute, funtsean, emakumeek egiten duten lana mespretxatu nahi dute.

Azpimarragarria da, aitortza gutxien duten lan horiek beharrezkoenak dira pertsonon ongizaterako eta bizirauterako. Era berean, esparru produktiboan jarduteko funtsezkoak dira, eta gizarteak ez du bere gain hartzen zaintzak posible egingo dituen gizarte eredu berri bat sortzea.

Beraz, aipatu ez arren, eta kuantifikatzeko borondaterik ere egon ez arren, dagoen soldata arrakala handiena soldata truke lan egiten duenaren eta aitortzarik ez duelako lana doanik egin behar dutenen artekoa da. Edota, emakumeen artean dauden soldata bereizketak adinaren, egoera administratiboaren, jatorriaren, klase sozialaren edota aniztasun funtzionalaren arabera.

Nahikoa da! Emakumeek egiten duten aitortu gabeko lanek balioa dute eta, horregatik, planto egitera animatzen dugu udaleko emakume guzteei:

Soldata arrakalak, jazarpen sexuala, emakumeen lanen aitortza (soldatapekoak izan edo ez), emakumeen esplotazio eta prekarizazioa onartzen duten politika instituzional neoliberalak, soldatapeko lanetatik urruntzen dituzten kontziliazio neurri iruzurtiak, ardua partekaturako politika erreal falta, jaiotza sustatzeko politika atzerakoiak eta, gainera, zaintza lanetarako erantzukizun sozialarekin loturarik gabekoa, soldatapeko lanari zuzenean loturiko eskubideak, lanaren banaketan dagoen bidegabekeria eta ondoriozko prekarizazioa eta emakumeen egoera administratibo edo jatorriagatik herritartasun edo naziotasun aitortza falta, soldatapeko lana eduki behar izana sistemak inposatutako baldintza negargarrietan eskubideak aitortuak izateko...

Martxoaren 8an pertsonal batza hau kalera aterako da mugimendu feministaren deialdiarekin bat eginez, eta salatuko ditugu:

Zaintza lanen eta lan horien banaketa ez justuaren arduragabekeria soziala, etxeko langileen lan eskubide gabezia, sexuaren eta etniaren arabera lan banaketa, emakumeak zaintza lanetara "derrigortzen" dituzten murrizketak: osasun zerbitzuetan, hezkuntzan, gizarte eta dependentzia zerbitzuetan, kristalezko sabai eta paretak edota soldatapeko lanetan dauden baldintza okerragoak: kontratuen behin behinekotasuna, lanaldi partzialak, baldintza prekarioak, kontratatzailearen arabera "lan berdinegatik, soldata ezberdinak"... Eta guzti horrek, emakumeen soldatetan duen eragina, emakumeen ibilbide profesionalean sortutako mugak, osasunean, pentsioetan, eta finean, emakumeen bizi baldintzetan.

Arazoi hauengatik eta beste askogatik, martxoaren 8an planto egitera animatzen zaituztegu! Bai udaleko emakume langileei, bai udal gobernuko emakumeei baita egun horretarako egokitutako papera jokatzea gizon langileei ere.

Izan ere, Martxoak 8ko deialdiaren kokapena egiteaz gain, eta idazki honen izenburuan azaldu bezala, hitzetatik ekintzetara pasa beharko genuke. Horretarako, pertsonal batza honek udal gobernu honi zera proposatu nahiko lioke:

Oiartzungo udalean, hausnarketa egin ostean, ohartu gara badirela soldata arrakalean hainbat kontu konpondu beharko liratekeenak. Horien artean, etxez etxeko zerbitzu feminizatuaren dagoen balorazio eskasa, soldata arrakala emanez. Baita ere, garbitzaile lanpostuari ematen zaion balioa. Adibidez konparaketa bat eginez kaleko garbiketarekin. ("Kasualitatez" gizon bezala).

Egoera hau bideratzen hasteko, eta ikusirik udal gobernu honek bat egiten duela mugimendu feministak zabaldu dituen irizpideekin, hona proposamena:

- Etxez etxeko zerbitzuan: Balorazio sakona egitea eta dagokion balioa ezartzea kontutan harturik lehen aipatutako guztia zein gako hauek ere:

o- Titulazioa: Orain arte, graduatu eskolarrarekin nahiko zen etxez etxeko lanetan aritzeko. Egun, titulazioa beharrezkoa da. "Profesionaltasun Titulua" edo titulazio baliokidea eskatzen ari da. Honek, ezagutza zein erantzukizun ezberdinak eskatzen ditu.

o- Funtzioak: Zerbitzuan ezarritako funtzioaz gain (zaintza, sukaldatzea, etxeko garbitasunak, laguntza sozio-sanitarioa, prebentzioa...) denboran beste eginkizun batzuk gehitu eta gehituko dira. Kolektibo ezberdinak atenditzeak beste ezagutza zein erantzukizunak eskatzen ditu, problematika bereziak eta propioak, estrategi egokiak ezartzeko ezagupen zehatzak eta teknikoak bereganatuz:

- Gaixotasun mentalak.
- Diru kudeaketa (dirua gure ardurapean egotea).
- Familien arteko gatazkak.
- Laguntza teknikoen erabilera, leku aldaketarako eta garraiorako makina ezberdinen erabilera. Honek trebetasuna eta erantzukizuna eskatzen du: guruak, eskalamobilak, orugak, salbaeskalerak...
- Harremana zailtasunak dituzten pertsonekin.
- Adikzioak dituzten prestonak.
- Zaintza paziente terminalekin baita heriotzeko momentuan ere.
- Gaixotasun kutsakorren arriskua. Egoera ez osasungarrian dauden etxeak.
- Familia ez duten pertsoneri Insulina eta Clexanea injektablea jartzea. Honek duen erantzukizuna.
- Botikaren kontrola eta jarraipena.
- Emerjentzi egoerak.

o- Beste batzuk:

- Disponibilitate konpromezua lanaldiaren ordutegitik kanpo sortzen diren egoerak kudeatzeko (mediku txandak, gaixotasun egoerak, emergentziak, istripuak, heriotzak...)
- Lan taldearekin harremanetan egoteko, langileen mugikor partikularra erabiltzea (wuatsapen erabilpena).
- Errepidean istripuen arriskua une oro. Kotxe partikularren erabilpena.
- Profesional arloan langileek jasotzen duten aholkularitza "NURA" profesional taldearen bitartez. Zerbitzuak modu terapeutikoen bidez kudeatzea gomendatze dituzte, markatzen dizkieten pausoekin erantzutea. Erantzuna ona eta baliozgarria izaten da, baina esfortzua suposatzen du, eta hau egun ez dago baloratua ezarrita duten mailean.

- Garbitzailearen lanpostuaren balorazioa egitea, konparaketa eginez kaleko garbitasunaren zerbitzuarekin. Eta soldata arrakala ematekotan, gutxienez hau parekatzea.

- Udal eraikinetan dauden aldageletan intimitatea bermatzea, aldagela indibidual edo mistoak eginez.

Azkenik, Martxoaren 8an greba egingo duten emakume langileen egun horretako "galdutako" soldata, Oiartzungo mugimendu feministari ematea edota hau egon ezean, Euskal Herriko mugimendu feministari ematea donazio gisa borroka honek dituen gastuak laguntzeko.

Beraz, gogoratu, Martxoaren 8an kalera aterako gara, gure arteko ezberdintasunak errespetatuz, sistema kapitalista heteropatriarkal honen aurka borrokatzeko!

**BADA GARAIA HITZETATIK EKINTZETARA PASATZEKO!  
KAPITALA HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!!**



KAPITALA HAUTSI, BIZITZARI EUTSI!!



**Oiartzungo Udaleko Pertsonal Batza  
LAB sindikatua**